

Pertsonaien deskribapena

A testua

Helena erizaina zen; auzo osoan ibiltzen zen batera eta bestera, etxez etxeko sendaketak egiten. Eta denek maite zuten. Txikikeriaren batengatik deitzen bazioten ere, ez zuen inoiz purrustadarik egiten, eta beti irribarrez zaintzen zituen bere gaixoak. "Ez ote da inoiz triste jartzen; nola egon liteke bat beti irribarrea ezpainetan duela? Ez ote da goibeltzen, adibidez, gurasoez oroitzean?", galdetzen nion neure buruari. Baina goibeltzen bazen edo ez bazen, nik behintzat ez nuen inoiz kopetilun ikusi.

Helena ederra zen benetan. Bizkar xuxen eta tentekoa, zango luxe eta zaluduna; eta aldakak... era berezi atseginen mugitzen zituen; ez dakit: zu barruan hartuko bazintu bezala. Batzuetan, txirikordak egiten zituen bere ile horail luzean, eta orduan txoratu egiten nintzen hari begira; orduan ez zegoen mundu osoan gure Helena baino ederragorik. Helenaren aurpegia Ama Birjinaren irudirik otzanenaren eta filmetako antzezle ederrenen bilduma zen. Haren begiak bihotzeraino sartzen zitzaizkizun, nahiz eta lotsati gisa begiratu, eta haren ezpainetatik irteten zen hitz bakoitzak bazirudien musu bat zekarrela airean.

Bazeukan, hala ere, bihurri puntu bat Helenaren begiradak, halako sorgin izpi bat, barnea zalantzan jartzen zidana. Izpi horiek ikusten nizkionean, zalantza eta kezka biltzen zitzaizkidan barruan, eta halako fidakaitasun bat sentitzen nuen Helenarekiko.

JUAN KRUIZ IGERABIDE
Helena eta arrastiria
Elkarlanean



1. ADIERAZI ESALDIK EGIA "E" EDO GEZURRA "G" DIREN. IDATZI LETRA LARRIZ.

- Narratzaileak era objektiboan deskribatzen digu Helena.
- Narratzaileak Helenari buruzko iritzi pertsonalak ematen ditu.
- Narratzaileak Helenaren alderdi onak ikusten ditu soilik.
- Narratzaileak ez du ezkututzen Helenak eragiten dion lilura.

2. TESTUAN, ZER ERATAN DAUDE ANTOLATUTA DESKRIKAPENAREN ATAL DESBERDINAK? ORDENATU ZENBAKIEKIN.

- Gorputz itxura
- Nortasunaren badaezpadako alderdiak
- Nortasunaren alderdi onak.

3. ERANTZUN GALDEREI

IRAKURRI 1. PARAGRAFOA, ETA ADIERAZI "X" BATEN BITARTEZ NOLAKOA DEN HELENA.

- | | |
|-----------|---------------|
| - Goibela | - Barregarria |
| - Alaia | - Kopetiluna |
| - Prestua | - Inozoa |

2. PARAGRAFOAN, HELENAREN GORPUTZEKO ZEIN ATAL DESKRIBATZEN DIRA? "X" BATEKIN MARKATU.

- | | |
|------------|-------------|
| - Bizkarra | - Aurpegia |
| - Bularrak | - Eskuak |
| - Sudurra | - Belarriak |
| - Zangoa | - Orkatilak |
| - Aldakak | - Begiak |
| - Betileak | - Ezpainak |
| - Oinak | - Belaunak |
| - Ilea | - Atzazalak |



Narrazio testu bat irakurtzen dugunean, pertsonaien imajina bat sortzen dugu gure irudimenean. Irudi hori sortzeko oso baliagarriak gertatzen zaizkigu idazleak testuan tartekatzen dituen deskripzio elementuak. Literatura deskribapenean, pertsonaiaren bi alderdi hartzen dira kontuan: gorputz itxura (alderdi fisikoa) eta nortasuna (alderdi psikikoa).